

# Eskola-asegurua

PRESTAZIOAK



@dministración  
electrónica



GOBIERNO  
DE ESPAÑA

MINISTERIO  
DE EMPLEO  
Y SEGURIDAD SOCIAL

GIZARTE SEGURANTZAREN  
ESTATUKO IDAZKARITZA

SECRETARÍA DE ESTADO  
DE LA SEGURIDAD SOCIAL



GIZARTE SEGURANTZAKO  
ESPAINIAKO INSTITUTUA

**PRESTAZIOAK**



# **Eskola-asegurua**

- **Eskola-istripuagatiko prestazioak**
- **Gaixotasunagatiko prestazioak**
- **Familia-ezbeharragatiko prestazioak**



8. edizioa

Argitaratzailea: Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala (PUB015 eus)

AOIZ: 271-17-095-X

[www.seg-social.es](http://www.seg-social.es)

<https://sede.seg-social.gob.es/>

<http://publicacionesoficiales.boe.es/>

# Aurkibidea

AURKEZPENA .....	4	GAIXOTASUNA .....	10
APLIKAZIO EREMUA: NORI ETA NON .....	5	• Mediku-laguntza .....	10
ESKOLA-ASEGURUAK ESTALTZEN DITUEN IKASKETAK .....	5	• Farmazia-prestazioak .....	13
ESTALITAKO ARRISKUAK .....	6	• Ikaslearen heriotzagatiko kalte-ordainak .....	13
PRESTAZIOAK .....	6	FAMILIA-EZBEHARRA .....	14
BATERAEZINTASUNAK .....	6	• Prestazioa ordaintzea .....	14
PROZEDURA ETA ORDAINKETA .....	7	• Zenbatekoak .....	14
ESKUMENAK .....	7	• Sortzapena .....	15
ESKOLA-ISTRIPUAK .....	8	• Ordainketa .....	15
• Mediku- eta farmazia-laguntza eta osasun-zentroak .....	8	• Bateragarritasunak .....	15
• Ezintasunagatiko kalte-ordainak eta pentsioak .....	9	• Luzapenak .....	15
• Ikaslearen heriotzagatiko kalte-ordainak .....	9	ESKABIDEAK AURKEZTEA .....	16
• Preskripzioa .....	9	• Eskabideak non aurkeztu .....	16
		• Epeak .....	16
		• Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak .....	16
		ARAUDIA .....	20
		GSIN-REN PROBINTZIA	
		BULEGOAK .....	23



## Aurkezpena

Eskola Aseguruaren helburua inguruabar txarretan ikaslea babestea da, hala ustekabe sortzen dire-netan nola aurreikusteko modukoetan.

Babes hori Aseguruari afiliatuta dauden ikasleen onurarako ematen da, babestutako arriskuetao edozein gertatzen denean, betiere eskatzen diren baldintzak betetzen badira.

Liburuxka honetan Eskola Aseguruaren alderdi esanguratsuenak aurkituko dituzu: zein diren babes-tuta dauden ikasleak, eskatzen diren baldintzak, ematen diren prestazioak, eskabideak...

Eskuliburu honetan dagoena baino informazio gehiago behar baduzu, ipini harremanetan Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalarekin (GSIN):

- Telefono honetan: **901 16 65 65**.
- Internetez: **www.seg-social.es**  
edo: **https://sede.seg-social.gob.es**
- Pertsonalki ere joan zaitezke GSINk Espainia osoan dituen arreta eta argibideetarako zentro batera (CAISS). Horretarako hitzordua eskatu behar duzu, **901 10 65 70** telefonora deituz edo idatzi baten bidez.



**Eskola-asegurua**



## *Nori aplikatzen zaion*

Nahitaez sartzen dira ikasle espainiarrak edo Espainian legez bizi diren atzerritarrak, eskakizun hauek betetzen badituzte:

- 28 urtetik beherakoak izatea (adin hori betetzen den ikasturte osoa estaltzen da).
- Ikasketa jakin batzuetan ofizialki matrikulatuta egotea.
- Dagokion kuota ordaindu izana.
- Urte bateko gabealdi bat egiaztatzea, eskola-istripurako, familiaburuaren heriotzagatiko familia-ezbeharrerako eta tokologiarako izan ezik.

Eskakizun horretatik salbuetsita daude, halaber, aurreko urtean DBHko 2. maila edo hezike-ta berezia egin dutenek, baita ikasketak atzerrian egin dituztenek ere.

## *Non aplikatzen den*

Babesa lurralde nazionalen aplikatzen da, eta, osasun-prestazioen kasuan, Europako Esparru Eko-nomikoko (EEE) herrialdeetako eta Suitzako egonaldietan babestuko dira ikasleak.

## *Eskola-asegurua estaltzen dituen ikasketak*

- Batxilergoa eta DBHko 3. eta 4. mailak.
- Bigarren mailako, erdi-mailako eta goi-mailako lanbide-heziketa eta heziketa berezia.
- LHko goi-mailako prestakuntza-ziklora sartzeko proba.
- Lanbide Prestakuntzako Programak.
- Ikastetxe bateratuetaoak (Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 47.2 artikulua).
- Erdi mailako, goi mailako eta doktoregoko Unibertsitate Ikasketak.
- Musika-kontserbatorioetako goi maila.
- Dantza-kontserbatorioetako goi maila.



## Eskola-asegurua

- Arte dramatikoak.
- Teologia, Eliza Katolikoaren goi mailako ikasketa-zentroetan.
- Helduen bigarren hezkuntzako bigarren maila (EDU/1622/2009 Agindua, ekainaren 10ekoa).
- Enpresetan praktikak egitea dakarten unibertsitate-ikasketak.
- Bigarren zikloko Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntzako ikasketak, 14 eta 16 urte bitarte.
- Goi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko probaren ordezkiko ikasketak.
- Lanbide-heziketako ikaskuntzen baliokidetzat emandako kirol-ikasketak.
- Musika- edo dantza-kontserbatorioetan egiten diren musika- edo dantza-ikasketak, aldi be-rean DBHko hirugarrena eta laugarrena edo Batxilergoa ikasten badira.
- Unibertsitateetan kolaboratzeko bekak dituzten ikasleak.
- Heziketa Bereziko bigarren zikloa.
- Irakasgaitasun Ziurtagiria (IGZ).

## *Estalitako arriskuak*

- Eskola-istripua, Gaixotasuna eta Familia-ezbeharra.

## *Prestazioak*

- Eskola-istripuagatik, gaixotasunagatik eta familia-ezbeharragatik.
- Izan daitezke: Ekonomikoak eta Sanitarioak.

Prestazio ekonomikoetan hauek sartzen dira: Familia-ezbeharragatiko kalte-ordainak.

Eskolako istripuen ondoriozko ezintasunengatiko kalte-ordainak.

Eskolako zein eskolaz kanpoko istripuek edo gaixotasunak eragindako ehorzketa-gastuengatiko kalte-ordainak.

## *Bateraezintasunak*

- Eskola Aseguruaren prestazio sanitarioak bateraezinak dira aseguru horren afiliatuak onura-dun izan litezkeen beste prestazioekin, baldin eta eduki bera badute eta arrisku analogoetatik era-tortzen badira, ikaslea aldi berean Gizarte Segurantzako erregimen batean alta emanda badago, MUFACE, ISFAS eta MUGEJU barne.



Kasu horietan, dagokion Gizarte Segurantzaren erregimenetik jasoko dira prestazioak, eta Eskola Aseguruak falta den aldea ordainduko luke, halakorik bada.

- Eskola Aseguruaren prestazio sanitarioak bateraezinak dira altarekin parekatutako egoera batean dagoen ikasleak guztizko eta subsidiatutako legezko langabezian dagoelako eskubidez jaso-ko lituzkeen prestazio sanitarioekin. Kasu horietan, ikasleak dagokion Gizarte Segurantzako erre-gimenaren kargura jasoko lituzke prestazioak.

### ***Prozedura eta ordainketa***

Eskabideak aurkezteko epea eskatzen den prestazioaren arabera aldatzen da (ikus 16. orrialdea).

Prestazio ekonomikoak zuzenean interesdunari ordainduko dizkio GSINK, eta eragindako gastu sanitarioak baimendutako osasun-zentroari ordainduko zaizkio, edo zuzenean ikasleari, dagozkion fakturak aurkeztu ondoren.

### ***Eskumenak***

Prestazio ekonomikoak eskabidea aurkeztean den GSINren Probintzia Zuzendaritzari dagozkio.

Prestazio sanitarioak osasun-laguntza eman den probintziako Zuzendaritzari dagozkio, ikaslea matrikulatuta dagoen probintzia edozein dela ere.

#### **Prestazio sanitarioen eskumenak transferituta dituzten autonomia-erkidegoak**

Eskola Aseguruaren prestazio sanitarioen gaineko eskumenak transferituta dituzten autonomia-erkidegoetan (Aragoi, Asturias, Balear Uharteak, Kantabria, Kanariar Uharteak, Gaztela-Mantxa eta Extremadura) eragindako osasun-gastuak autonomia-erkidego bakoitzak hartuko ditu bere gain; hori dela-eta, gaiaren gaineko eskumena duten autonomia-erkidegoko organoetan eskatu beharko da gastu horien itzulketa.

Eskola-istripuztat jotzen da aseguruak nozitzen duen edozein gorputz-lesio, zuzenean edo zeharka ikasle izaerarekin lotuta dauden jardueren kariatz gertatu bada: kirol-ekintzak, batzarrak, ikasketako, praktiketako edo “karrera amaierako” bidaiak eta antzekoak, betiere jarduera horiek ikastetxeek antolatuta edo baimendu baldin badituzte.





# Eskola-Istripuak

## Eskola-asegurua

Istripu baten biktima den ikasleak mediku- eta farmazia-laguntzarako eskubidea izango du, baita dagozkion kalte-ordainak eta pentsioa jasotzeko ere, istripuak eragiten dion ezintasunaren arabera. Ikaslearen heriotzaren kasuan, ehorzketa-gastuetarako kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango dute senideek.

### Mediku- eta farmazia-laguntza

- Istripuaren unetik ikasketetara itzultzeko moduan egon arte, urte bateko gehieneko epearen barruan, istripuak aldi baterako ezintasun bat eragiten badu.
- Istripuaren unetik ezintasun-deklarazioarekin mediku-alta jaso arte, istripuak ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia eragin badu.

### *Mediku-laguntzan hauek sartzen dira:*

- Ospitaleratzea eta ebakuntza kirurgikoa.
- Laguntzarako beharrezkotzat jotzen diren protesi- eta ortopedia-aparatuak hornitzea eta be-rritzea.
- Sendatzeko beharrezkoa den birgaitze-tratamendua.

- Diagnostiko edo tratamendurako beharrezkoak diren mediku-probak.

### *Farmazia-prestazioak.*

Prestazio horiek doakoak dira, anbulatorio-erregimenean zein ospitale-erregimenean.

### *Osasun-zentroak*

- Eskola-istripu bat nozitu duten ikasleek Osasun Sistema Nazionaleko zentro publikoetara eta osasun-zentro hitzartuetara edo zentro kolaboratzaileetara joan ahal izango dira.
- Osasun-zentro hitzartuak egonda ere ikaslea hitzartu gabeko osasun-zentro batera joaten bada, Eskola Aseguruak tarifen arabera ordainduko ditu fakturak, eta aldea, halakorik bada, ikaslea-ren kargura izango da.
- Mediku eta osasun-zentro hitzartu edo kolaboratzaileak ez badago, istripuak eragindako gastu guztiak ordainduko zaizkio ikasleari.
- Behar bezala justifikatutako kasuetan laguntza urgentea behar izan bada eta hitzartu gabeko zentro pribatuetara joan bada, eragindako gastu guztiak ordainduko zaizkio ikasleari.



## Istripua - Eskola Asegurua

### **Ezintasunagatiko kalte-ordainak eta pentsioak**

- Istripuak ezintasun iraunkor eta absolutua eragiten badu jadanik hasita dauden ikasketetara-ko, 150,25 eta 601,01 euro bitarteko kalte-ordaina ordainduko da, jadanik egin diren ikasketen den-boraren eta geroago lanbide-jarduera baterako izandako gaitasun-murrizketaren proportzioan.
- Istripuak ikasketetarako baliaezintasun handia eragiten badu, eta ikaslea bizitzako ekintza funtsezkoenarako desgaituta gelditzen bada, urtean 144,24 euroko biziarteko pentsioa ordainduko da.

### **Ikaslearen heriotzagatiko kalte-ordainak**

- Istripuak heriotza eragiten badu, 30,05 euro ordainduko zaizkie senideei ehorzketa-kontzeptuan.
- Istripua familiaren bizilekutik kanpo gertatu bada, gastu horiek 30,05 eta 120,20 euro bitar-tekoak izan daitezke.

- Hildako ikasleak bere kargura emazterik, seme-alabarik, 65 urtetik gorako edo lan guztieta-rako ezindutako zuzeneko aurrekorik, neba-arreba adingaberik edo lan guztiatarako ezindurik badu, de 300,51 euro emango zaie.

### **Preskripzioa**

Eskola-istripuitik eratorritako prestazioak erreklamatzeko ekintzak istripua gertatu eta urtebetera preskribatzen dira.



# Gaixotasuna

## Eskola-asegurua

### Mediku-laguntza

- Mediku-laguntzaren barruan ospitaleratzea sartzen da, hau da: kirurgia orokorra, neuropsikiatria, biriketako eta hezurretako tuberkulosia eta tokologia.
- Medikuntzaren ikuspegitik justifikatuta badago, fisioterapia, kimioterapia, erradioterapia, kobaltoterapia, radiumterapia, giltzurrun artifiziala eta aurpegi-masailetak kirurgia eskaini ahal izango dira, kasuan-kasuan ezarritako berezitasunekin.
- Mediku-laguntza Osasun Sistema Nazionaleko zentro publikoetan emango da, edo, bestela, osasun zentro hitzartu edo kolaboratzaileetan.
- Ikaslea hitzartu gabeko osasun-zentro batera joaten bada, Eskola Aseguruak tarifen arabera ordainduko ditu fakturak, eta aldea, halakorik bada, ikaslearen kargura izango da.

Hala eta guztiz ere, estaldura autonomia-erkidegoari badagokio, erkidego horretan xedatutakoa aplikatuko da.

### Kirurgia orokorra

Kirurgia-espezialitate guztietako kirurgia-operazioak sartzen dira, estetika hutsagatik egiten direnak izan ezik.

- Klinikako ostatu- eta mantenu-zerbitzuak, ebakuntza-gela, mediku- eta farmazia-laguntzak barne hartzen ditu ospitaleratzeak irauten duen bitartean, baita ordezipen-protesiak ere (ortopedikoak ez).
- Ospitaleratze-egunetik alta egunera bitartean egonaldiak eragindako gastuak eta kirurgia-operaziora eramaten duen diagnostikoa.
- Kanpoan gelditzen da ebakuntza egiten den klinikarako bidaia.

### Neuropsikiatria

- Prozesu neuropsikiatrikoen tratamendua barne hartzen du, ospitaleratuta zein erregimen ambulatorioan, haien larritasunagatik ikasketen jarraipena kaltetzen badute. Hortik kanpo gelditzen dira garapen psikologikoaren, jokabidearen eta emozioen asaldurak deiturikoak, zeinak haurtzaroan eta nerabezaroan hasi ohi baitira.



## Gaixotasuna - Eskola-asegurua

- Psikologoek aplikatutako psikoterapia-saioak sartuko dira, betiere psikiatra batek agintzen baditu.

### *Osasun-barneratzea*

- Barneratze-erregimeneko tratamendutzat joko da ikasleak gutxienez egunean 6 ordu igarotzen baditu ospitalean, nahiz eta gaua bertan ez egin.
- Erietxe egokietan emandako ostatu- eta mantenu-zerbitzuak, mediku-zainketak, farmazia-laguntza eta tratamendu bereziak barne hartzen ditu.
- Horrez gain, laguntza psikiatrikoa, terapia eta psikoterapia ordainduko dira, indarrean dau-den tarifen arabera.
- Hasierako 6 hilabeteko epe baterako ematen da. Epe hori urte eta erdi luzatu ahal izango da, 6 hilabeteko aldietan.

### *Tratamendu ambulatorioa*

- Tratamendu ambulatortzat joko da ikasleak egunean 6 ordu baino gutxiago igarotzen badi-tu ospitalean.

- Horren barruan tratamendu medikoa behar duten gaixoen mediku- eta farmazia-laguntza sartzen dira.
- Medikuen, psikoterapeuten, terapien eta proba osagarrien ordainketa barne hartzen ditu, baita medikazio-gastuen % 70 ere.
- Hasierako 6 hilabeteko epe baterako ematen da, eta iraupen bereko epe bat gehiagorako luzatu ahal izango da, urte 1 arte gehienez.

### **Tokologia**

- Erditu aurretik tokologoari egindako bisitak, medikuen ordainsariak (tokologoa, anestesista, erizaina eta emagina) eta barneratze-gastuak sartzen dira, kirurgia balitz bezala.
- Ez dira sartzen jaioberrien arreta-gastuak.

### **Tuberkulosia**

- Biriketako tuberkulosiaren kasuetan, erietxe egokietako ostatu- eta mantenu-gastuak, zain-keta medikoak, toraxeko kirurgia txikia eta handia eta beharrezkoa den farmazia-laguntza barne-hartzen ditu.



## Gaixotasuna - Eskola-asegurua

- Hezur-tuberkulosiaren kasuetan, erietxe egokietako ostatu- eta mantenu-gastuak, zainketa mediko kirurgikoa, eta farmazia-laguntza barne-hartzen ditu.
- Ospitaleratze- edo tratamendu-epea 18 hilekoa izango da. Epe hori 3 hileko aldietan luza daiteke, gehienez 3 urtera arte, etenik gabe.

### Fisioterapia

- Kirurgiaren ondorengo tratamenduetan edo eskola-istripuak eragindako traumatismoen ka-suan medikuak justifikatzen duenean emango da.
- Tratamenduak, gehienez, 30 saio izango ditu, baina kopuru hori ez-ohiko izaeraz gainditu ahal izango da Eskola Aseguruko aholkulari medikoak beharrezkotzat jotzen badu.
- Indarreko tarifen arabera ordainduko da.

### Kimioterapia, erradioterapia eta kobaltoterapia

- Tratamendu-saioak, medikazioa, ospitaleko farmazia, erabili eta botatzeko materiala, labora-tegiko probak, odol-transfusioak, erradiologia-probak eta proba diagnostikoak barne hartzen ditu, baita ospitaleko egonaldia ere.
- Aurreko paragrafoan zerrendatzen diren kontzeptuekin lotuta aurkezten den fakturaren % 30 ordainduko da, 1.502,53 euro gehienez.

### Aurpegi-masailtako kirurgia

- Mediku- eta farmazia-laguntza eta barneratze- eta mantenu-zerbitzuak estaltzen ditu.
- Eskola-asegurua emango du, betiere ikaslearen osasunerako arriskutsua suertatzen ez bada.
- Ortodontzia- eta odontologia-tratamenduak kanpoan gelditzen dira.



## Gaixotasuna - Eskola-asegurua

### Farmazia-prestazioak

- Laguntza medikoak irauten duen bitartean emango dira.
- Barneratzeen kasuetan, farmazia-laguntza osoa izango da, kosturik gabea ikaslearentzat.
- Tratamendu ambulatorioan horren zenbatekoaren % 70 ordainduko da, eta onuradunak gai-nerako % 30a ordainduko du. Prestazioak Gizarte Segurantzako mediku batek agindu baditu, Gizar-te Segurantzako onuradun gisa ordaindutako % 40aren eta Eskola Aseguruaren babestu gisa dago-kion % 30aren arteko aldea baino ez zaio ordainduko ikasleari.
- Gizarte Segurantzaren finantzaketatik kanpo geratzen diren medikamentuak Eskola Aseguruaren finantzaketatik kanpo ere geratzen dira.

### Ikaslearen heriotzagaritako kalte-ordainak

- Gaixotasunaren biktima den afiliatuaren ehorzketa-gastuak ordainduko dira baldin eta gaixotu eta hurrengo bi urteetan hil bada gaixotasun horren ondorioz, eta ikasten jarraitzeko ezinta-sunak hil arte iraun badu.
- Zenbatekoak istripuaren ondorioz izandako heriotzaren kasurako berberak izango dira (ikusi 9. orrialdea).



# Familia-ezbearra

## Eskola-asegurua

### Prestazioaren xedea

- Familia-ezbeharragatiko prestazioaren helburua ikasleei jadanik hasitako ikasketen jarraitu-tasuna ziurtatzea da, karrera osatzen duten ikasurteen ohiko amaierara arte, doktoregoa barne, haien etxean gertatutako egoera ekonomikoaren zuzeneko ondorio gisa.

### Prestazio hori kasu hauetan emango da:

- Familiaburuaren heriotza Ondorio horietarako, aita eta ama jotzen dira familiaburutzat, be-tiere familiaren ekonomiara diru-sarrerak ekartzen badituzte.

Bi gurasoak hilez gero, familiari eusteko diru-sarrerak ekartzeagatik biak familiaburutzat jotzen badira, familia-ezbeharragatiko bi prestazio eman ahal izango dira.

- Familia-aurria edo -porrota. Ez da familia-aurri edo -porrotzat joko ikasketak ordaintzeko baliabide ekonomikoen urritasun iraunkorra.

Familia-aurri edo porrotak jadanik hasitako ikasketekin jarraitzea guztiz galarazi behar du, baliabide ekonomikorik ezagatik. Galera ekonomikoak nolabaiteko garrantzia izan behar du, eta ez da nahikotzat joko diru-sarreraren murrizketa soilak edo ikasketak ordaintzeko baliabide ekonomikoen urritasun iraunkorra.

### Zenbatekoak

- 86,55 euro urtean familia ugarikoak ez diren ikasleentzat.
- 103,85 euro urtean kategoria orokorreko familia ugariko ikasleentzat.
- 129,82 euro urtean kategoria bereziko familia ugariko ikasleentzat.



## Familia-ezbeharra Eskola-asegurua

### **Sortzapena**

Gertaera eragilea sortu eta hurrengo hilaren 1etik aurrera sorraraziko da.

### **Ordainketa**

Onuradunari bere karrera normaltasunez, errepikatu gabe, amaitzeko falta zaizkion adina urteetan ordainduko da.

Edonola ere, onuradunak 28 urte betetzen dituenean amaituko da.

### **Bateragarritasunak**

Bateragarria da edozein eskola-bekarekin.

### **Luzapenak**

- Behin prestazioa lortuta, urtero konprobatuko da aprobetxamendu akademikoa izan dela eta egoera ekonomikoak bere horretan jarraitzen duela.
- Luzapenetarako, familiaren diru-sarrerek ezin izango dute 6.010,12 euro baino gehiagokoak izan familiako kide bakoitzeko. Ondorio horietarako kontuan izango dira ikaslearekin bizi diren familia-unitateko kide guztiak eta bakoitzak dituen diru-sarrerak.





# Eskabideak aurkeztea

## Eskola-asegurua

### Eskabideak non aurkeztu

Prestazioaren eskabidea Agentzietako edozeinetan aurkeztu daiteke, edo ikasleak ikasketak egiten dituen edo berak edo bere familiak bizilekua duen lurraldeko G SINaren Probintzia Zuzendaritzako CAISSetan. Prestazio sanitarioen kasuan, osasun-laguntza jaso duen probintziako G SINren Probintzia Zuzendaritzan aurkeztu beharko da.

Halaber, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erki-deari buruzkoak, 16.4. artikuluan adierazten dituen Estatuko Administrazio Orokorraren esparruko lekuetako edozeinetan aurkez daitezke.

### Epeak

- Eskola-istriputik eratorritako prestazio guztiak: urte 1.
- Osasun-prestazioak mediku-prestazioaren aurretik eskatu behar dira eskubidea aitortzeko, medikuak behar bezala egiaztatutako urgentzia-kasuetan izan ezik; kasu horietan, 5 urteko gehiene-ko epean aurkeztu ahal izango da.

- Eskola-istriputik eratorritik ez diren prestazio ekonomikoak eta ehorzketa-gastuak: 5 urte.
- Familia-ezbeharragatik prestazioak: 5 urte, 3 hileko gehieneko atzeraeraginekin.
- Baliaezintasun handiaren kasuan, gertaera eragilea sortu eta urtebete pasa baino lehen eskatu beharko da, eta kausa gertatu eta hurrengo hilaren lehen egunetik sorraziko dira.
- Neuropsikiatria-prestazioaren kasuan, onartutako sei hilabeteak amaitu baino lehen aurkeztu beharko da luzapen-eskabidea.

### Eskabideari erantsi beharreko agiriak

#### Kasu guztietan:

- Nortasun Agiri Nazionala edo Familia-liburua.



## Eskabideak aurkeztea - Eskola aseguru

- Hau badira:
  - EB/EEEko edo Suitzako herritarrak: Europar Batasuneko herritarra izatearen erregistro-ziurtagiria edo bizileku iraunkorra izateko eskubidearen ziurtagiria edo indarrean dagoen nortasun-agiria.
  - EB/EEEko edo Suitzako herritar baten senideek, ez badute aipatutako estatueta herritarta-suna: Europar Batasuneko herritarra den senidearen bizileku-txartela edo txartelaren eskabidea aurkeztu dela egiaztatzen duen frogagiria.
  - EB/EEEko edo Suitzako naziotasunik ez eta egoitza Espainiako Estatuan dutenak: atzerita-rraren identifikazio-txartela (AIT); edo bizileku-baimena, aldi baterakoa zein iraunkorra.
- Unibertsitatetik kanpoko ikasleentzat, ikasketa-zentroaren egiaztatzea, egiten duten ikasturtea eta espezialitatea zehaztuta, baita eskola-aseguruaren kuoten ordainketa ere.
- Unibertsitateko ikasleentzat, matrikula-inprimakiaren frogagiria, ikasturtea, gaiak eta Eskola Aseguruaren kuotaren ordainketa jasotzen dituen.
- Aurreko ikasturteko eskola-aseguruaren kuotak ordaindu izanaren frogagiria, urte bateko kotizazioa egiaztatzeko, eskola-istripuaren, heriotza eragindako familia-ezbeharraren eta tokologia-ren kasuan izan ezik (betekizun horretatik salbuetsita daude aurreko ikasturtean zehar eskola-aseguruaren sartuta ez dauden ikasketak egin dituen ikasleak).

### **Berariazkoa prestazio bakoitzean:**

#### **Prestazio ekonomikoak**

#### *Eskolako istripuen ondoriozko ezintasunengatikoa kalte-ordainak:*

- Eskolako istripuaren parte.
- Medikuziurtagiria, bilakaera eta behin betiko ondorioak zehazteko, baita istripua jasan duenak izandako gaitasun-murrizketa zehazteko ere, egiten zituen ikasketei begira.



## Eskabideak aurkeztea - Eskola aseguru

### *Ehorzketa-gastuengatiko kalte-ordainak (istripuen- eskolako zein bestelakoen- eta gaixo-tasunen ondoriozko heriotzetan):*

- Istripu-partea (bakarrik eskolako istripua bada).
- Gaixotasunen ondoriozko heriotzetan, medikuaren txostena. Bertan adierazi beharko da afiliatua gaixotu eta hurrengo bi urteetan hil dela gaixotasun horren ondorioz, eta ikasten jarraitzeko ezintasunak hil arte iraun duela.
- Heriotza-ziurtagiria, istripuaren zein gaixotasunaren kasuan.

### *Familia-ezbeharragatiko kalte-ordainak*

- Familia Liburua eta familia ugariaren titulua, horrelakorik dagokionean.
- Heriotza-ziurtagiria, familiaburua hiltzen bada.
- Auri edo porrotaren kausa argi egiaztatzen duten dokumentuak, zein egunetan gertatu ziren adierazita.

- Familia-ezbeharraren prestazioa luzatzeko, aurreko urtean ikasitako ikasgaiak egiaztatzen dituen ziurtagiri akademikoa, ikasketen jarraipena eta ikasturtearen aprobetxamendua konprobatze-ko, eta familiaren diru-sarreraren deklarazioa, familia-unitateko kide bakoitzeko 6.010,12 euroko gehieneko kopurua gainditzen ez dela konprobatzeko.

## **Osasun-prestazioak**

### **Eskola-istripuaren kasuan:**

- Eskola-istripuaren parte, eskaeraren 4. puntuan bete beharrekoa.
- Medikuen baja-partea

### **Kirurgiaren, tokologiaren, neuropsikiatriaren eta birikietako eta hezurretako tuberkulosia-ren kasuan:**

- Sendagilearen ziurtagiria ofiziala, honako hauekin: laguntza medikoa emango duen medikua eta haren elkargokide-zenbakia, zentroaren edo kontsultaren helbidea, espezialitatea, data, eta, hala badagokio, non ospitaleratu den, diagnostikoa, agindutako tratamendua eta sendatzeko beharrezkoa den gutxi gorabeherako denbora.



## Eskabideak aurkeztea - Eskola aseguru

- Ziurtagiri horren ordez larrialdi medikoaren txostena aurkeztu ahalko da, hala dagokionean.
- Neuropsikiatriaren kasuan, psikiatrak honako hauek adierazi beharko ditu: diagnostikoa (DSM-III-R edo CIE/10 nazioarteko sailkapenen arabera), pazientearen uneko egoeraren deskriba-pen laburra, tratamendu farmakologikoa eta agindutako terapia psikologikoa, eta ea azken hori psi-kologo batek edo psikiatrak berak egingo duen.

Fisioterapia, erradioterapia, kobaltoterapia, radiumterapia eta giltzurrun artifizialaren kasue-tan, aurreko puntuan adierazitako ziurtagiriez gain, eskabidea oinarritzen duen historial medikoa beharko da; bertan saioen kopurua, mota eta tratamenduaren guztizko kostua jasoko dira.

Prestazio horiek medikuaren laguntza jaso aurretik eskatuko dira eskubidea aitortzeko, esko-la-istripuaren kasuan izan ezik. Medikiak egiaztatutako larrialdietan, 5 urteko epean aurkeztu ahal-ko da.



# Araudia

## Eskola-asegurua

- 1953ko uztailaren 17ko Legea, Espainian Eskola Asegurua ezartzeari buruzkoa (7/18ko BOE).
- 1953ko abuztuaren 11ko Agindua, Eskola Aseguruko Mutualitatearen Estatutuak onartzen dituena (8/28ko BOE).
- 1956ko ekainaren 6ko Agindua, biriketako tuberkulosiaren prestazioa ezartzeko dena (6/18ko BOE).
- 1956ko irailaren 14ko Dekretua, aplikazio-eremua Maila Ertaineko Eskola Teknikoetako ikasleetara zabaltzeko dena (10/13ko BOE).
- 1958ko martxoaren 25ko Agindua, kirurgia orokorraren prestazioa ezartzeko dena (3/26ko BOE).
- 1958ko apirilaren 12ko Agindua, neuropsikiatriaren prestazioa ezartzeko dena (4/29ko BOE).
- 1959ko urtarrilaren 29ko Agindua, bekak eta familia-ezbeharraren prestazioa jasotzearen bateragarritasuna deklaratzeko dena (2/17ko BOE).
- 1959ko abenduaren 22ko Agindua, Estatutuen 7., 85. eta 95. artikulua aldatzeko dena (12/29 BOE).
- 1962ko martxoaren 1eko Agindua, neuropsikiatria-prestazioaren erietxe ondoko tratamen-dua ezartzen duena (3/16 BOE).
- 1962ko martxoaren 1eko Agindua, hezurretako tuberkulosiaren prestazioa ezartzen duena (3/16 BOE).
- 1963ko ekainaren 27ko Agindua, egun gabealdia ezarrita duten Eskola Aseguruko Mutuati-tatearen prestazioetan gabealdi hori ezabatzen duena (7/6ko BOE).
- 1962ko ekainaren 27ko Agindua, familia-ezbeharraren prestazioaren zenbatekoa 14.400 pezetara igotzen duena (9/7ko BOE).
- 1964ko irailaren 14ko Agindua, Goi-mailako Batxilergo Orokor eta Laboraleko eta Osasun Laguntzaile Teknikoen Eskoletako ikasleentzat Eskola Asegurua indarrean sartzea eta horren kuota zehazten dituena (10/12ko BOE).



## Araudia - Eskola aseguruia

- 1965eko apirilaren 21eko Agindua, Eskola Aseguruko mutualitatearen prestazioak zabaltzen dituena (tokologia, fisioterapia, erradioterapia, kobaltoterapia, radiumterapia eta giltzurrun artifizialaren prestazioak ezartzen ditu, eta kirurgiaren prestazioan sartzen ditu kirurgia-operazioa oinarritzen duen diagnostikotik eratorritako gastuak sartzen ditu) (5/13ko BOE).
- 2078/1971 Dekretua, abuztuaren 13koa, Eskola Aseguruaren aplikazio-eremua Lanbide Heziketako ikaskuntzetan diharduten ikasleei zabaltzen diena (18/9ko BOE).
- 1633/1985 Errege Dekretua, abuztuaren 28koa, Eskola Aseguruaren bateraezintasunei bu-ruzkoa eta kuota zehazten duena (9/14ko BOE).
- 270/1990 Errege Dekretua, otsailaren 16koa, doktorego titulua lortzeko unibertsitate-ikasketen hirugarren zikloan diharduten ikasleak Eskola Aseguruaren Erregimenean sartzen dituena (3/2ko BOE).
- 1990ko martxoaren 28ko Ebazpena, Gizarte Segurantzaren Araubide Juridikoaren Zuzendaritza Orokorrarena, Lanbide Heziketa Bereziko ikasleak Eskola Aseguruaren onurez baliatzeari buruzkoa (4/6ko BOE).
- 42/1994 Legea, abenduaren 30ekoa, neurri fiskal, administratibo eta sozialei buruzkoa (az-ken xedapenetako laugarrena) (12/31ko BOE - . 2/16ko Akts Zuz.).
- 1997ko otsailaren 7ko Agindua, atzerriar-txartela arautzen duena (2/15eko BOE).
- 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, atzerriarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta horiek gizartean integratzeari buruzkoa (1/12ko BOE).
- 8/2000 Lege Organikoa, abenduaren 22koa, Espainian bizi diren atzerriarren eskubide eta askatasunei eta haiek gizartean txertatzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren Erreformari buruzkoa.
- 286/2003 Errege Dekretua, martxoaren 7koa, prozedura administratiboak ebazteko epeen iraupena ezartzen duena, Gizarte Segurantzako gaietan prestazioak aitortze aldera (4/8ko BOE).



## Araudia - Eskola aseguruia

- 40/2003 Legea, azaroaren 18koa, familia ugariak babestekoa. (11/19ko BOE).
- 361/2006 Errege Dekretua, martxoaren 27koa, Eskola Aseguruko prestazio sanitarioen ku-deaketari atxikitako bitartekoak Gaztela-Mantxako Autonomia Erkidegoari eskualdatzeari buruzkoa (3/30eko BOE).
- 362/2006 Errege Dekretua, martxoaren 27koa, Eskola Aseguruko prestazio sanitarioen ku-deaketari atxikitako bitartekoak Extremadurako Autonomia Erkidegoari eskualdatzeari buruzkoa (3/30eko BOE).
- 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa (5/4ko BOE).
- 779/2006 Errege Dekretua, ekainaren 23koa, Eskola Aseguruko prestazio sanitarioen ku-deaketari atxikitako bitartekoak Aragoiko Autonomia Erkidegoari eskualdatzeari buruzkoa (6/28ko BOE).
- 1190/2006 Errege Dekretua, urriaren 13koa, Eskola Aseguruko prestazio sanitarioen kudea-ketari atxikitako bitartekoak Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoari eskualdatzeari buruzkoa (7/11ko BOE).
- 1921/2008 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, Eskola Aseguruko prestazio sanitarioen ku-deaketari atxikitako bitartekoak Kantabriako Autonomia Erkidegoari eskualdatzeari buruzkoa (12/28ko BOE).
- 2002/2008 Errege Dekretua, abenduaren 5ekoa, Eskola Aseguruko prestazio sanitarioen kudeaketari atxikitako bitartekoak Asturiasko Printzerriko Autonomia Erkidegoari eskualdatzeari buruzkoa (12/31ko BOE).
- EDU/1622/2009 Agindua, ekainaren 10ekoa, Hezkuntza Ministerioaren eremuan helduen oinarrizko heziketa, presentziala zein urrutikoa, arautzen duena (6/18ko BOE).
- 828/2010 Errege Dekretua, ekainaren 25ekoa, Eskola Aseguruko prestazio sanitarioen ku-deaketari atxikitako bitartekoak Kanarietako Autonomia Erkidegoari eskualdatzeari buruzkoa (6/29ko BOE).
- 8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzako Lege Oroko-rraren testuategina onartzen duena (BOE, 10/31).

# GSINen probintzia-zuzendaritzak



## Eskola-asegurua

ARABA (Gasteiz)	Eduardo Dato, 36	01005	945 160 700
ALBACETE	Avda. de España, 27	02002	967 598 700
ALACANT	Churruca, 26	03003	965 903 100
ALMERIA	Pl. Emilio Pérez, 3	04001	950 189 500
ASTURIAS (Oviedo)	Santa Teresa de Jesús, 8-10	33007	985 666 200
AVILA	Avda. de Portugal, 4	05001	920 359 400
BADAJOS	Ronda del Pilar, 10	06002	924 216 100
BARTZELONA	Sant Antoni M. Claret, 5-11	08037	934 345 200
BIZKAIA (Bilbo)	Kale nagusia, 89	48011	944 284 500
BURGOS	Vitoria, 16	09004	947 476 600
CACERES	Avda. de España, 14	10001	927 620 000
CÁDIZ	Plaza de la Constitución, s/n	11008	956 298 600
KANTABRIA (Santander)	Avda. Calvo Sotelo, 8	39002	942 394 300
CASTELLÓ	Avda. del Mar, 6	12003	964 354 000
CEUTA	Alcalde M. Olivencia Amor, s/n	51001	956 526 800
CIUDAD REAL	Avda. Rey Santo, 2	13001	926 292 800
KORDOBA	Córdoba de Veracruz, 4	14008	957 221 000
CORUÑA, A	Ronda Camilo José Cela, 16	15009	881 909 300
CUENCA	Parque de San Julián, 7	16001	969 178 400
GIPUZKOA (Donostia)	Otamendi Anaiak 13	20014	943 483 600
GIRONA	Santa Eugènia, 40	17005	872 082 500
GRANADA	Restauradores, 1	18006	958 181 200
GUADALAJARA	Carmen, 2	19001	949 888 300
HUELVA	San José, 1-3	21002	959 492 500
HUESCA	Avda. Pirineos, 17	22004	974 294 300
BALEAR UHARTEAK (Palma)	Pere Dezcallar i Net, 3	07003	971 437 300





## Eskola-asegurua

JAÉN	Fuente de Buenora, 7	23006	953 216 500
LEÓN	Avda. Padre Isla, 16	24002	987 845 700
LLEIDA	Jordi Cortada, 2	25001	973 700 700
LUGO	Ronda Músico Xosé Castiñeira, 26	27002	982 293 300
MADRIL	Serrano, 102	28006	915 661 000
MÁLAGA	Huéscar, 4	29007	952 979 000
MELILLA	General Marina, 18	52001	952 680 000
MURTZIA	Avda. Alfonso X El Sabio, 15	30008	968 382 300
NAFARROA (Iruña)	Oliveto Kondea, 7	31003	948 289 400
OURENSE	Concejo, 1	32003	988 521 000
PALENTZIA	Avda. Comunidad Europea, 16	34004	979 168 000
PALMAS, LAS	Pérez del Toro, 89	35004	928 249 024
PONTEVEDRA (Vigo)	O Grove, 4	36209	986 249 700
ERRIOXA (Logroño)	Sagasta, 2	26001	941 276 000
SALAMANCA	P.º Canalejas, 129	37001	923 296 100
SANTA CRUZ DE TENERIFE	Avda. José Manuel Guimerá, 8	38003	922 601 300
SEGOVIA	Pinar de Valsaín, 1	40005	921 414 400
SEVILLA	Sánchez Perrier, 2	41009	954 746 000
SORIA	San Benito, 17	42001	975 234 500
TARRAGONA	Rambla Nova, 84	43003	977 259 625
TERUEL	Tarazona de Aragón, 2-A	44002	978 647 100
TOLEDO	Venancio González, 5	45001	925 396 660
VALENTZIA	Bailén, 46	46007	963 176 000
VALLADOLID	Boston 4 y -6	47007	983 215 600
ZAMORA	Avda. Requejo, 23	49012	980 559 500
ZARAGOZA	Doctor Cerrada, 6	50005	976 703 400

## **Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala**

Zerbitzu Zentralak

Padre Damián kalea, 4 – 28036 Madril

Telefono-zk.: 915 688 300

**Informazioa eskatzeko telefono-zk.:**

901 16 65 65

**[www.seg-social.es](http://www.seg-social.es)**

**<https://sede.seg-social.gob.es>**

**<https://sede-tu.seg-social.gob.es>**





GIZARTE SEGURANTZAKO ESPAINIAKO INSTITUTUA  
INSTITUTO NACIONAL DE LA SEGURIDAD SOCIAL